



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

### 93. INFORMAZIO BULETINA

> 2014ko Urria



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean aritzeko konpromisoa berritu dute

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko eta Gipuzkoa Foru Aldundiko ordezkariak urriaren amaieran bildu dira 2011n sinatutako mugaz gaindiko lankidetzeta-hitzarmenaren emaitzak baloratzeko, hitzarmen horren indarraldia aurten amaitzen baita.

Georges Labazée Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko lehendakaria eta Martín Garitano diputatu nagusia bat etorri dira lankidetzeta horren emaitzak positiboki baloratzeko orduan, eta beharrezkotzat jotzen dute bi erakundeen eskumeneko esparruetan elkarrekin lan egiten jarraitzea, esparru horiek oso antzekoak baitira.

Hitzarmena indarrean egon den bost urte hauetan, Kontseilu Orokorrak eta Aldundiak elkarrekin lan egin dute esparru ezberdinak ukitzen dituzten 23 proiektu aurrera ateratzeko: gizarte politika, ingurumena, haur eta gazteen babesa, kirola, turismoa, babes zibila, kultura eta ekonomia, beteak beste.

Guztira, 23 ekintza ditugu martxan oso esparru ezberdinetan. Baina, batez ere, elkarrekin lanean jarraitzeko asmoa dugu. Izan ere, herritarrek eskatzen digute gune estankoak alde batera uzteko eta elkarren artean lan egiteko.

Hitzarmenak indarrean iraun duen azken 5 urteotan, Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin lan egin dute 23 proiektutan, askotariko eremuetan, hala nola gizarte-politika, ingurumena, haur eta gazteen babesa, kirola, turismoa, babes zibila, kultura edo ekonomia..

*Informazio gehiago:*

<http://www.kanpoharremanak.net>

[http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota.do?id=1803&detalle=1&anti\\_cache=1415605498510](http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota.do?id=1803&detalle=1&anti_cache=1415605498510)



### > **Espainiaren eta Europako Batzordearen arteko Elkartzeko Akordioa sinatu dute 2014-2020 aldirako Egitura Funtzak erabiltzeko**

Europako Batzordeak Elkartzeko Akordioa sinatu du, eta horren bidez onartu du Espainian Europako Inbertsio eta Egitura Funtzen erabilera optimoa egiteko estrategia. Akordioa sinatuta, beste urrats bat eman dute 2014-2020 aldirako kohesio-politiken guztizkoaren finantzaketarako 28.580 milioi euroko inbertsioa egin ahal izateko (Europako lurralde mailako lankidetzaren finantzaketa eta Gazte Enpleguaren Ekimenerako esleipena barne). Akordio horren baitan, Espainiak ere 8.290 milioi euro jaso ditu landa-garapenerako eta 1.160 milioi euro arrantza eta itsas sektoreetarako.

Elkartzeko Akordioa onartutakoan, Estatuko Programa Operatiboaren negoziazio-prozesua hasi da, baita eskualdeetako ere. Euskadiren kasuan, Eusko Jaurlaritzak Europako Batzordera bidali zituen 2014ko uztailaren amaieran Euskadin Europako Inbertsio eta Egitura Funtzen aplikaziorako Programa Operatiboaren proposamenak, zehazki Eskualdeko Garapenerako Europako Funtsei (EGEF) eta Europako Gizarte Funtsei (EGIF) dagozkienak.

Bidalitako dokumentuek Euskadiko Autonomia Erkidegoan esku hartzeko gaikako helburuak eta estrategia zehazten dituzte, 2014-2020 programazio-aldi berrian bi funts horiek konfinantzatutako jardueri dagozkienez, baita ezarritako helburuetarako programatutako finantza-hornidurei dagokienez ere.

Bidali ondoren, Batzordeak gomendioak egin ahal izango ditu Programa horiek aurkezten direnetik hiru hileko epean eta Programa Operatiboak gauzatzeko, gehienez, sei hileko epea izango da aurkezten denetik zenbatzen hasita, betiere, estatu/eskualde kideak Batzordearen oharrak aintzat hartu ondoren.

*Informazio gehiago:*

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-14-1226\\_es.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-14-1226_es.htm)



### > **BCBLk, Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sareko zentroak, EGEFek lagunduta, arabiera-ingelesa irakurle elebiduna garatuko du**

Basque Center for Cognition, Brain and Language (BCBL) Donostian dagoen diziplina ugariatuko nazioarteko ikerketa-zentroaren helburua kognizioaren, garunaren eta hizkuntzaren ikerketa egitea da, eta orain gutxi Qatar emirerriko gobernuarekin akordioa lortu du arabiera eta ingelesezko irakurle elebiduna garatzeko.

Basque Center for Cognition, Brain and Language (BCBL) Ikerbasquek, Innobasquek, UPV-EHUK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin sortutako zentroa da eta kognizioa, garuna eta hizkuntza aztertzen ditu. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen parte da zentroa eta hasieratik izan du Europako konfinantzaketa EGEF 2007-2013 Euskadiko Programa Operatiboaren bidez.

Irakurle elebiduna garatzeko sinatutako akordioa Qatarreko gobernuak hasitako hezkuntza-erreformaren barruan sartzen da, eta herrialdeko hezkuntza-sisteman hainbat aldaketa ezartzea du helburu, horien artean, eskoletan aldi berean bi hizkuntza oso desberdin ikastea, hau da, arabiera eta ingelesa. Hori erronka handia da, biek alfabeto oso desberdinak erabiltzen baitituzte (arabiarra eta latindarra), eta horretara, irakurle elebiduna garatu behar dela ezarri dute.

Qatar Foundationek, zientzia, arteak eta garapena sustatzeaz arduratzen den Qatarreko emirerriko fundazioak, BCBLrengan jo du arabiera eta ingelesezko irakurle elebiduna garatzea eskatzeko. BCBLk nazioarteko abangoardiako ezagutza neurozientzia kognitiboan aplikatuko du tresna garatu ahal izateko eta bi alfabetorekin irakurtzen ikastea garunean izaten diren aldaketak edo irakurketako ikaskuntzan dislexia nola agertzen den aztertuko du, eta hala, hezkuntza-programen kalitatea hobetzeko eta irakaskuntza-metodoak hobetu ahal izateko metodoak azalduko ditu.

*Informazio gehiago:*

<http://www.bcbl.eu>



## KOHESIO-POLITIKA

### > 2014-2020 aldirako POCTEFA Programa Operatiboaren proposamena Europako Batzordeari bidali diote

Pirinioetako Lan Komunitateak (PLK), POCTEFAren Kudeaketa Agintaritzak (Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa), irailaren amaieran Europako Batzordera bidali zuen 2014-2020 programazioaren aldi berrirako Programa Operatiborako proposamena.

POCTEFA 2014-2020 hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea lortzeko Europa 2020 Estrategiaren ildoan diseinatu da. PLK-k Europako Batzordeari aurkeztutako proposamena zazpi helburu tematikoren inguruan artikulatzen da, eta bederatzi inbertsio-lehentasunen inguruan dago osatuta, eta horietan oinarrituko du etorkizuneko Frantzia-Espainia-Andorra mugaz gaindiko eremurako programaren estrategia

Honako hauek dira bidalitako proposamenetan aukeratuta eta sartutako gaikako zazpi helburuak:

- Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza indartzea.
- ETE-en lehiakortasuna hobetzea.
- Klima-aldaketara egokitzeko eta arriskuak prebenitu eta kudeatzeko sustapen-lana egitea.
- Ingurumena babestea eta baliabideen erabileran eraginkortasuna bultzatzea.
- Garraio iraunkorra sustatzea eta sareko azpiegitura nagusietatik oztopoak ezabatzea.
- Enpleguaren kalitatea eta iraunkortasuna sustatzea eta laneko mugigarritasuna ahalbidetzea.
- Gizarteratzea sustatzea eta pobreziaren aurka eta edozein bazterkeriaren aurka egitea.

Aurrekontu-ahalegin handienak egingo diren inbertsio-lehentasanak hauek dira: eskualdeko garapen ekonomikoa I+G+b-n inbertsioak egindako sustapenaren bidez eta ondare naturalaren babesa eta zaintza aldaketa klimatikoaren egokitzapenean eta eraginen arriskuak saihesten interes berezia ipiniz.

POCTEFA 2014-2020ren aurrekontua 189,3 milioi eurokoa da, beraz, aurreko programarekiko % 12ko igoera izan du. Zenbateko hori, zazpi helburu horien artean banatuta, 177,9 milioi eurokoa da, eta 11,4 milioi euro Programaren laguntza teknikorako bideratzen dira.

Europako Batzordeak onartutakoan, Programaren Kudeaketa Agintaritzak proiektuen deialdia antolatuko du eta hor mugaren bi aldeetako eragileek mugaz gaindiko lankidetzarako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte.

*Informazio gehiago:*

<http://poctefa.eu/arboli/index.jsp?id=d6c275d5ebd1c3d360465fe70c1e5b7a>





### > **Akitania-Euskadi Euroeskualdeak kultura, ondare, hezkuntza, kirol, gazteri eta eleaniztasuna bultzatuko duten 17 proiektu berri babestuko ditu**

2014-2020 Plan Estrategikoaren garapen-testuinguruan, Akitania Euskadi Euroeskualdeak onartu du Akitania-Euskadi 2014 deialdian hautatutako proiektuen zerrenda. Guztira, eta 300.000 euroko aurrekontuarekin, Euroeskualdeak 17 proiektu berri babestea erabaki du. Proiektuen aukeraketan adierazgarritasun geografiko handiena lortzeari eman diote lehentasuna, Euroeskualdeko lurraldearen osotasuneko eragileak bilduta.

Aukeratutako proiektuen artean, eta kultura eremuari dagokionez, antzerki- eta musika-lankidetzak nabarmentzen dira, baita artisten egonaldiak eta bitartekaritza-proiektuak ere. Aukeratutako proiektuen artean daude Euroeskualdeko hizkuntzen erabilera eta ikaskuntza sustatu nahi duten hainbat ekimen (truke linguistikoak, prestakuntza, tailerrak eta mintegiak eta abar), baita gazteen mugikortasuna ahalbidetzeko jarduerak ere (lizeoen arteko trukea, ikasleak, Deialdi honetan babestuko dira, bestalde, ondare arkitektoniko komunari eta mugaz gaindiko kirol-jarduerari dagozkion proiektuak.

*Informazio gehiago:*

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/media/8542/Selection--2014---tableau-a-diffuser.pdf>



**> POCTEFA 2007-2013ren hirugarren deialdiak beste bi milioi euro programatu ditu; guztira, Espainia-Frantzia-Andorra mugaz gaindiko lurralderako 7 milioi euro zuzenduz**

POCTEFA 2007-2013 Programazio Batzordeak Programa Operatiboaren hirugarren deialdian mugaz gaindiko lankidetzako beste zazpi proiektu onartu ditu, guztira EGEF funtsetatik datozen 2 milioi euroko zenbatekoarekin. Txanda honetan programatutako mugaz gaindiko zazpi proiektuetako bazkideek guztira 2.073.009 € jasoko dituzte Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF), haiek egiteko beharrezko inbertsioaren % 65 (3.189.245 €).

Oraingo honetan 3 dira euskal partaidetza duten proiektuak, hain zuzen ere, hauek: PIRECOW, coworking proiektua Pirinioetan Midi-Pyrénées eta Euskadi eskualdeko eragileen artean garatzeko; BANG, negozioen azeleragailua eta jarduera ekonomiko berrien sortzailea, modu bateratuan Akitania, Katalunia eta Euskadiko eskualdeetako erakundeen artean sustatutakoa; eta INNOV MUGABE 2.2, itsas eta elikadura eta nekazaritzako sektorearen egituraketarako Akitania eta Euskadiko erakundeek aurkeztutako proiektua.

Zazpi ekimen horiekin, guztira, POCTEFA 2007-2013ren hirugarren deialdiak 21 proiektu programatu ditu (aurkeztutako 38 hautagaietatik), eta horiei 7 milioi euroko esleipena eman zaie.

*Informazio gehiago:*

<http://poctefa.eu/noticias/detallenoticia.jsp?id=68ebaa88-b715-4e93-abfe-d41fa0119272>



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Urria

## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Euskadi, kluster eta lehiakortasuneko estrategietan Europako eskualde mailako jardunbide onena

Europako Batzardeak Euskadi klusterreko eta lehiakortasuneko estrategien garapenean eredugarri gisa eta Europan lehiakorren artean katalogatutako eskualdeen multzoaren ordezkari gisa aukeratu izana dela eta (Vanguard Ekimena), Eusko Jaurlaritzako Lehiakortasun eta Garapen Ekonomikoaren sailburuak, Arantxa Tapiak, Europako Batzardeak urrian Bruselan egin duen Clusterrei buruzko Europako Konferentzian parte hartu du.

Bere hitzaldian, Eusko Jaurlaritzako sailburuak eskualdeetatik lideratu ahal izango den Europa mailako politika industrial izatearen beharra aipatu du. Sailburuak egoera aprobetxatu du Euskadiko eredu ekonomikoaren ezaugarriak eta azken bilakaera azaltzeko, eta horrez gain, eredu ekonomikoa eta Espezializazio Adimentsuaren estrategiekin planteatutako erronka berrien lerrokatzea lortu behar dela baieztatzen.

Horrekin lotuta, Euskadiko Espezializazio Adimentsuaren Estrategia erronka berriei erantzuna ematearekin zuzenean lotuta dago, honako hauek uztartuta: fabrikazio aurreratuari lotutako zeharkako lehentasuna, energiaren moduko funtsezko sektorea, eta hazteko potentzial handia duen teknologia altuko negozioaren bila egindako dibertsifikazio-eremuaren konpromisoa (biozientziak, esaterako).

*Informazio gehiago:*

[http://www.clusterconference2014.eu/files/bio/Arantxa\\_TAPIA.pdf](http://www.clusterconference2014.eu/files/bio/Arantxa_TAPIA.pdf)

[http://www.irekia.euskadi.net/eu/news/22432-arantxa-tapia-defiende-bruselas-una-politica-industrial-europea-decidida-que-pueda-liderarse-desde-las-regiones?criterio\\_id=816338&track=1](http://www.irekia.euskadi.net/eu/news/22432-arantxa-tapia-defiende-bruselas-una-politica-industrial-europea-decidida-que-pueda-liderarse-desde-las-regiones?criterio_id=816338&track=1)





### > ERA-NET 2015: Euskadiko enpresentzako nazioarteko lankidetzarako aukerak I+G+b arloan

Azaroaren 25ean Bilbon izango da ERA-NET 2015 deialdien aurkezpen-jardunaldia. Horren helburua da nazioz gaindiko I+G+b arloko proiektuetan enpresek duten parte-hartzea sustatzea.

ERA-NET Europako Batzordearen ekimena da, Europako herrialde eta eskualdeen artean berrikuntza, ikerketa eta garapenaren arloan lankidetzara sustatzeko. Tresna bikaina da Euskadiko ETE-ek I+G+b arloko jardueretan nazioartekotzeko lehen urratsak eman ditzaten. Aurreko edizioetan parte hartu izan dutenen esperientziaren arabera, ETE-etara oso egokituta dagoen tresna da; izan ere, Europako herrialde eta eskualdeak tartean izanik, barne-kudeaketa errazeko partzuergoak eratzeko aukera ematen du, eta horrek Euskadiko enpresei nazioarteko merkatuan kokapena ematen die. Gainera, gerora hedadura handiagoko Europako proiektuetan parte hartzera bultzatzen ditu.

Jardunaldia Enterprise Europe Network-ek, Grupo Spri taldeak, Eusko Jaurlaritzako Lehiakortasun eta Garapen Ekonomikoko Sailak eta Innobasquek antolatu dute eta 2015erako planifikatutako deialdiak aurkeztuko dituzte, eta horrez gain, Europako proiektuetan parte hartzeko laguntza-zerbitzuak ezagutaraziko dituzte. Proposamenen arrakastarako aholku praktikoak ere emango dituzte.

*Informazio gehiago:*

<http://www.innobasque.com/home.aspx?tabid=665&idEvento=196>



### > **Open Days 2014: Euskadik itsas sektorearen espezializazioa babestu du Europako beste eskualde batzuekin batera**

Open Days delakoaren hamabigarren edizioan aurten Euskadiko eragileen parte-hartze handia izan dute. DGRegiok antolatutako eskualde mailako politikari buruzko eztabaida eta elkarriketarako foroak dira Open Days izenekoak.

Hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzak izan da itsas sektorearen espezializazioari buruzko Europako eztabaidaren arduraduna. "New Alliances for Maritime Industries Growing Smart" (Itsas industriren hazkunde adimentsurako aliantza berriak) izenburupean antolatutako jardunaldien harira, Eusko Jaurlaritzako Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariak, Ramón Martínez de Murgiak, hitzaldi bat eskaini du izenburu honekin: "Erronkak eta aukerak Euskadiko itsas industrietan. Nola lagun dezakete tokiko eta eskualdeko agintariek egoera hobetzen?".

Hainbat eremutatik itsas industriei babesa emateko Eusko Jaurlaritzaren estrategia azaldu ostean, Martínez de Murgiak hitzaldia prestakuntzaren eremuan garatzen duen lanera bideratu du, eta Lanbide Heziketak itsas industriari egin diezaiokeen ekarpena eta espezializazioa babestu ditu. Jardunaldietako Euskadiko ordezkariak Euskadiko Lanbide Heziketatik laguntza hori emateko lantzen diren arlo nagusien berri eman du: prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua, ekintzailetasuna eta nazioartekotzea.

Europako Batzordeak ere parte hartu du hitzaldian, eta eskualdeek egindako ekarpen guztien berri jaso du, itsas sektoreari dagokionez EBk etorkizunean egingo dituen ekintzetarako kontuan hartzeko. Europako erakundeak arreta berezia eman dio balio erantsiari eta Eusko Jaurlaritzak itsas espezializazioari eman dakioken esperientziari, Europan abangoardian dagoen Lanbide Heziketa baitu.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/conferences/od2014/index.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2014/index.cfm)

[http://www.irekia.euskadi.net/eu/news/22133-euskadi-las-jornadas-open-days-bruselas?criterio\\_id=816372&track=1](http://www.irekia.euskadi.net/eu/news/22133-euskadi-las-jornadas-open-days-bruselas?criterio_id=816372&track=1)



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > Eskualdeko 2014ko urtekaria (Eurostat)

Eskualdeko urtekariak Europar Batasuneko Estatu kideen eskualdeei buruzko estatistika-datuak ematen ditu, baita Merkataritza Askeko Europako Elkartearen (AELC) eta hautagai diren herrialdeetako eskualdeetakoak ere.

11 atal ditu: biztanleria, osasuna, hezkuntza, laneko merkatua, ekonomia, enpresak, ikerketa eta berrikuntza, informazioaren gizartea, turismoa, garraioa eta nekazaritza. Atal bakoitzean estatistika-informazioa mapa, irudi eta taula bidez azalduta dago.

Edizio honetan, berrikuntza gisa, lau atal berri sartzen dira, ingurumenari, lurraren erabilerari, Europako hiriei eta eskualdeko lehiakortasunari buruzkoak, hain zuzen ere.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_PUBLIC/1-06102014-AP/EN/1-06102014-AP-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/1-06102014-AP/EN/1-06102014-AP-EN.PDF)

### > Europar Batasuneko Kohesio Politika: eskualde eta hirietan inbertsioa egiten (Europako Batzordea)

Europar Batasuneko Kohesio Politikaren funtzionamendua azaltzen duen bideoa. Bertan azaltzen da nola lagun dezaketen inbertsio horiek herritarren eguneroko bizitzan, eskualdeetako hazkunde ekonomikoa sustatuta.

Kohesio Politikaren bidez, Europar Batasunak urtero milioika euro inbertitzen ditu enplegua eta hazkundea sortzea sustatzeko, eta eskualdeetan alde ekonomiko eta sozialak murrizteko.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/videos/video-details.cfm?vid=1482&LAN=ES](http://ec.europa.eu/regional_policy/videos/video-details.cfm?vid=1482&LAN=ES)



### > Basque Country. Country business features (The Guardian)

Erresuma Batuko The Guardian egunkariak Euskadiko enpresa- eta berrikuntza-jarduerari buruzko erreportaje berezi zabala argitaratu du.

Euskal geografia osoaren ibilbidea egin dute erreportajeak, eta gure eredu ekonomikoaren ezaugarriak, sistema teknologikoa eta berrikuntza deskribatu dituzte, eta erakunde mailako, maila ekonomikoko eta enpresa mailako jende ezagunei egindako elkarrizketa ugari ere argitaratu dituzte. Erreportajeak arreta berezia eskaini dio Gipuzkoari, eta atal berezia egin dute bertako enpresa-ehunari eta izaera ekintzaileari aipamena egiteko.

Horrez gain, Euskadiko ondare kultural eta naturalari egindako erreferentzia ugari ageri dira; hori guztia irudi eta bideoen aukera handiarekin.

*Informazio gehiago:*

<http://www.theguardian.com/the-report/basque-country>